

Siriako etorkizun latza

Miloi erdi hildako inguru, milioika desplazatu eta manipulazio informatiboen zerrenda amagabea dira Siriako gerra hibridoak utzi dituen. Kanpo faktoreek azaltzen dute Sirian gertatutakoaren parte handia. Mendebaldeak eta bere aliatuek gerra hibridoa egin diote Siriari. Halere, hau ezin da ezerezetik eraiki, barne faktoreen abiarazlea behar da horretarako. Hiru barne faktorek jokatu zuten Siria-
ren kontra.

Lehenengoa iraupen luzekoa da. Siriako Arabiar Errepublika formalki akonfesionala bada ere, praktikan tolerantzia handia duen askotariko estatu konfesional gisa funtzionatzen du. Arzoa da, suniten gutxiengo bat (populazioaren %20 inguru) estatua musulman sunita gisa konfesionalizatzearen alde dagoela. Helburu horrekin, XX. mendearen bigarren partean Anaia Musulmanek bi altxamendu egin zituzten eta 2011n hirugarrena egiteko modua lortu zuten beste bi faktoreei esker.

Bigarren faktoreak zerikusi zuzena du XXI. mende hasieran Siriako Gobernuak hartu zituen neurri neoliberaletan, ordurarte izan zuen ekonomia sozializatzailetik urruntzen hasiz. Herrialdea ahulduta eta isolatuta zegoen Ekialde Hurbilean, Israelek eta AEBek lortu zuten hegemoniatatik. Iparramerikarrek *Gaizkiaren ardatzean* sartu zuten eta Wesley Clark jeneralak 2007an ematen zituen hitzaldietan azaltzen zuen bezala, Siriari edozein momentuan gerta ziezaiotkeen Iraki gertatutakoa. Ondoren, Wikileaks-ek filtratutako dokumentuei esker, badakigu 2006an AEBak Sirian erregimen aldaketa planifikatzen ari zirela. Ez dago jakiterik Siriak Munduko Bankuaren babesarekin harturiko neurri neoliberalen bulkada nagusia nazioarteko isolamenduari aurre egite-



Asier Blas Mendoza

EHU-KO IRAKASLEA

@AxiBM

2011ko protesta gehienak sektorialak izan ziren eta ez erregimen aldaketara bideratuak. Baina laster Anaia Musulmanek eta oro har, muturreko islamismoak kooptatu eta matxinadarako erabili zituen. Mendebaldeak, Turkiak eta Persiar golkoko monarkiek azkar armatu eta ekonomikoki sostengatu zituzten hainbat talde. Une horretatik aurrera protestetan aritutako asko pixkanaka-pixkanaka Siriako Arabiar Errepublikaren defentsan aritu dira

ko nahia ote zen edo ekonomia aldatzeko konbentzimendu politikoa. Edonola ere, neurri horiek nahigabe sozioekonomikoa eta politikoa sortu zituzten hirugarren faktorea agertu zenean. Siriako Estatuak nekazal produkzioari

diru-laguntza ugari kentzen zizkionean, 2007an, hamar urtez luzatuko zen lehorte gogorra hasi zen. Siriako ekonomiaren zutabeetako bat lehen sektorea da, Barne Produktu Gordinaren %20a eta esportazioen bizkarrezurra, krisirako koktela prest zegoen.

2011ko protesta gehienak sektorialak izan ziren eta ez erregimen aldaketara bideratuak. Baina laster Anaia Musulmanek eta oro har, muturreko islamismoak kooptatu eta matxinadarako erabili zituen. Mendebaldeak, Turkiak eta Persiar golkoko monarkiek azkar armatu eta ekonomikoki sostengatu zituzten hainbat talde. Une horretatik aurrera protestetan aritutako asko pixkanaka-pixkanaka Siriako Arabiar Errepublikaren defentsan aritu dira, besteak beste, gobernu eta oposizioak osaturiko kontzentrazio gobernuaren bitartez.

Epe motzean Siriak gerra irabazi du, baina epe luzean krisia erraztu zuten faktoreen indartze moduko bat aurreikusi daiteke. Herrialdearen aliatuek berreraikuntzarako jarriko duten diruak kanpo-zorraren igoera ekarriko du, soberania narriatuz. Bestalde, finantzaioa sobera izango ez delako, administrazioak ezingo du iritsi leku guztietara berreraikuntza lanak egiteko. Siriako Estatuak krisi aurretik zuen gaitasuna epe motzean berreskuratuko ez duenez, ekimen pribatuarentzako espazioa utzi beharko du ezinbestean, berreraikitze lanak eta zerbitzuen berrezartzea azkartzeko. Azkenik, muturreko islamistek beraien helburuak lortu ez badituzte ere, hurrengo borrokarako prestatuagoak egongo dira, besteak beste, Mendebaldearekin, Turkiarekin eta Persiar golkoko monarkiekin garatu duten harremana eta lankidetzaren medio. ■